Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/36338 tesuDRz6YJ https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253633 8tesuDRz6YJ

- HERRITARRAK
- INTERESDUNAK
- LIB. LEGEZKO ORDEZKARIAK
- ENPLEGUA ESKATZEN DUTEN PERTSONAK
- KARGU PUBLIKOAK DITUZTEN PERTSONAK

Tratatutako datuak:

Erakunde esleipendunak honako informazio pertsonal hau tratatu ahal izango du:

Eskura daitezkeen tratamenduaren datu pertsonalak
NAN/IFZ/AIZ/PASAPORTE-ZENBAKIA IZENA ABIZENAK POSTA ELEKTRONIKOA ARGAZKIA

Tratamendu-prozedurak edo -sistemak:

[X] Automatizatua (osoa edo partziala)
[X] Ez automatizatua

Tratamenduaren elementuak

TRATAMENDU-ERAGIKETAK
Jasotzea (Datuak hartzea) Kontserbazioa (biltegiratzea)

Datuen xedea: esleipena lortzen duen entitateak GETXOKO UDALA-UDALAri itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, horiek dauden euskarriak, prestazioa bete ondoren.

Segurtasun-neurriak: ezarri beharreko segurtasun-neurriak GETXOKO UDALA - Ayuntamiento DE GETXOren Segurtasun Politikan jasota daudenetatik beharrezkoak direnak izango dira, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean (segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin bat etorriz.

Eranskina aldatzea.- Kontratua gauzatzearen ondorioz, eranskin honetan ezarritakoa aldatu behar izanez gero, esleipendunak arrazoiz eskatuko du, eta eskatzen dituen aldaketak adieraziko ditu. Getxoko Udala

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/36338 tesuDRz6YJ https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202536338tesuDRz6YJ

eskatutakoarekin ados egongo balitz, Getxoko Udalak eranskin eguneratu bat egingo luke, eta bertan tratamenduaren xehetasunak zehatz-mehatz jasoko lirateke.

Sinatuta/ Firmado
JESUS ATECA ACEBO - 16038139D
2025.09.30 09:23:29 +02:00
Responsable de medio ambiente / Responsable de medio ambiente

Sinatuta/ Firmado
PEDRO MARIA SACRISTAN GONZALEZ - 14610645X
2025.09.30 09:33:48 +02:00
Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumen Arloko Arduraduna / Responsable del Area de Infraestructura, Obras y Servicios, Medio Ambiente

Sinatuta/ Firmado
IÑIGO URKITZA YAÑEZ - 16048112T
2025.09.30 11:16:05 +02:00
Ingurumena, Hirigintza-disziplina, -kudeaketa eta -plangintza eta Turismo zinegotzia / Concejal Área Planeamiento,Gestión, Disciplina Urbanística, Medio ambiente y Turismo.

AGIRI HAU TOKI GOBERNUKO BATZAK ONARTU DU EGUN HONETAN: DOCUMENTO APROBADO POR ACUERDO DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DE FECHA:
14 OCT. 2025
Idazkari nagusia / Secretario General

INGURUMEN-GELAN ETA GETXO UDALERRIAN INGURUMEN-HEZKUNTZAKO JARDUEREN ZERBITZU BATEN KONTRATAZIOA ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

1. AURREKARIAK

Getxoko Ingurumen Ikasgelak 2017an zabaldu zituen ateak berriro udalerriko toki estrategiko batean bere hezkuntza-eginkizuna garatzeko, Bolueko hezegunetik gertu dagoen Larrañazubiko zabortegi zaharrean.

Ikasgelako kanpoaldean dagoen lorategi botaniko batek bisitariei Getxoko ekosistemen landare-espezieak erakusten dizkie. Zentroak haurrentzako jolasak, piknikerako mahaiak eta komunak dituzten aisialdirako eremu bat ditu. Bestalde, zentroaren inguruetan dortoken idoi bat, baratze txiki bat eta landare aromatikoen parterre bat daude. Gainera, baso kolaboratiboa deitzen den gune txiki bat ere badago (zuhaitzak landatzen dira bertan).

Erakusketa-geletan ingurumen-jasangarritasunari lotutako gaiak jorratzen dituen erakusketa didaktiko bat ikus daiteke: hondakin, ur eta energiaren kudeaketa, biodibertsitatea...

Lizitatzaileak jarrita dagoen espazio fisikoaz eta ikasgelaren egungo egoeraz jabetu daitezen, instalazioa eskaintza entregatu aurretik bisitatu ahalko da. Bisita zehazteko, udaleko kontratazio-sailari eskatu beharko zaio.

Erakusketa iraunkorrarekin eta kanpoko lorategi botanikoarekin batera, ikasgelak bisitatzen duen talde bakoitzaren berariazko beharrei egokitutako hezkuntza eskaintza du.

2. XEDEA

Plegu honen xedea honako hau da: ikastetxeetarako eta oro har jendeari arreta emateko ingurumeneko sentsibilizazio- eta hezkuntza-jardueren zerbitzu bat ematea agintzen duten baldintza teknikoak finkatzea. Hezkuntza-mailako jarduera horiek egungo gizartearen ingurumen-arazoa erakutsiko duten hezkuntzako metodoak aplikatuz egingo dira, eta beti udalerrian landutako eskolako ingurumeneko partaidetza-programekin bat etorriz.

Udalerri honek ondorengo premisarekin bat egiten du: adin guztietako pertsonen heziketa hobetzeko lana egiten badugu gaur egun, horrek etorkizuneko errealitatea hobetzea ekarriko du, bizitzeko era berriak sortuz eta portaerazko jarraibide berriak sustatuz; hala, ingurumenarekin sintonian bizi ahalko da.

Ingurumen-hezkuntzako jarduerak ingurumen-ikasgelan nahiz kanpoaldean egin ahalko dira lizitatzaileek egitea egokitzat jotzen duten unitate didaktikoen arabera edo eskolan ingurumeneko parte-hartze programetarako diseinatutako ibilbideen arabera (hezegunea, hondakinen instalazioa, zabortegia, udalerria, ikastetxeak...).

3. LANEN EZAUGARRIAK

3.1. Garatu beharreko ekintzak

A) INGURUMEN-HEZKUNTZA

Ikasgelan ingurumen-hezkuntzako jarduerak egingo dira egunero haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat eta batxilergoko ikasleentzat, eta talde horiek zabaltzeko aukera izango da. Erakunde adjudikaziodunek bermatuko dute zerbitzu-prestazioaren barne daudela zerbitzua diseinatzea, ezartzea, ebaluatzea eta hobetzea. Eskaintzetan lantaldeak, jarduerak, unitate didaktikoen eskemak eta abar xehatuko dira.

Eskola-programetan gutxienez bi langile egongo dira. Ingurumen-hezkuntzako programa irailetik ekainera egiten da, astelehenetik ostiralera.

Eskainitako programa bakoitzerako beharrezkoa den material pedagogikoa landuko da, hau da, irakasleentzako koaderno bat eta ikasleentzat fitxa bat gutxienez.

Eskaintzan deskribatuko da eraikina nola erabiliko den elementu pedagogiko moduan eta, hala badagokio, horri laguntzeko hobekuntza-proposamenak egingo dira. Horrela, kontratuaren lehenengo urtean nahitaez aurkeztu beharko da erakusketa finkorako hobekuntza-proposamena, modu horretan, erabiltzaileen heziketa eta kontzientziazioa hobetzeko.

Bisiten antolaketa:

Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren funtzio guztiak egikaritzeko konpromisoa hartuko du hartzaile den jendearen artean hezkuntzako eskaintza zabaltzeko, arduradunekin kontaktatzeko eta bisiten programa finkatzeko, egutegiak koordinatu nahiz zehazteko, baita berak ordainduko dituen beharrezko publizitate-kanpainak eta liburuxken edizioak eta inprimaketak (gutxienez bat) koordinatu eta zehazteko ere.

Ingurumen-gelan lehentasuna izango dute Getxoko ikastetxeek. Horrenbestez, eskaintzan azalduko da zein sistematika erabiliko den erreserbak egiten direnean hori betetzeko. Getxoko ingurumen-ikasgelak, bertako hezkuntza-programen barnean, beste udalerri batzuetako ikastetxeak onartuko ditu. Kasu horretan, ikastetxe interesdunak dagokion udal-tasa ordaindu beharko du ikasgelan egon aurretik udalak hori egitea beharrezkotzat jotzen badu. Kobrantza hori enpresa adjudikaziodunak kudeatuko du, eta hori egin ostean, kobratutako zenbatekoak aldian behin udalari emango dizkio.

Udalak elementuei eta egin beharreko dibulgaziozko estrategiei oniritzia eman eta onartu egin beharko ditu, bai eta aurkeztu beharreko materialei eta baliabide didaktiko eta interpretaziokoei ere; programan egin beharreko lan-metodologien estrategiak proposatu beharko ditu, gainera.

B) INGURUMENEKO PARTAIDETZA-PROGRAMAK ESKOLAN

Getxo udalerriak etengabeko apustua egiten du eskolan jasangarritasuna integratzeko. Horretarako, eskola-komunitateak ingurua modu aktiboan zaintzea sustatzen du.

Esparru horretan, ingurumeneko partaidetza-programak diseinatzea eta martxan jartzea

planteatzen da ikuspegi integratzailearekin, errealistarekin eta Euskadin ingurumen-hezkuntzan indarrean dauden erreferentzia-esparruekin lerrokatuta.

Programa horien oinarria ikastetxeetan prozesu parte-hartzaileak aktibatzea izan beharko da eta lurraldean finkatuta dauden proposamenetatik abiatuta edo udalerriko ezaugarrietara egokitutako ekimen berrien bidez egituratu ahalko dira.

Proposamenean kontuan hartu beharreko elementuen artean hauek nabarmentzen dira:

-Ikastetxeetan egitura parte-hartzaileak dinamizatzea (batzordeak, talde eragileak, etab.) eta eskola-eragileen arteko topaketa-espazioak sustatzea.

-Irakasleei laguntzea jasangarritasunari buruzko hezkuntza-proiektuak diseinatzen eta ezartzen, sareko lana eta ikaskuntza kooperatiboa erraztuz.

-Curriculuma inguruarekin lotzen duten jarduerak garatzea, besteak beste, irteerak, tailerrak edo diagnosi parte-hartzaileak.

-Hezkuntza-komunitate osoa inplikatzea ingurumen-konpromisoa sustatzen duten ekintzetan, barne hartuta mugikortasun jasangarriari edo eskola-ingurua hobetzeari lotutako lan-lerro posibleak.

-Prozesu horietan inplikatutako erakundeekin eta administrazioekin koordinatzea eta ziurtatzea ezarpena koherentea dela eta tokiko errealitatera doituta dagoela.

-Laguntza-materialak, hezkuntza-baliabideak eta ebaluazio parte-hartzaileko mekanismoak sortzea.

Bereziki baloratuko da proposatutako programak argiak, koherenteak eta bideragarriak izatea eta udalerrian aurretik zenbateraino errotuta dauden kontuan hartuko da.

Gutxienez gaur egun udalerrian errotuta dauden bi programa aurkeztuko dira:

20-30 Agenda: Eusko Jaurlaritzak eta Ihobek sortutako metodologiari jarraitu beharko dio eta eskaintzan xehatuta garatu beharko da.

Eskola-bideak: Getxo udalerrian eskola-bideak onetsita eta seinaleztatuta daude. Programa honetan ikastetxeak, ikasleak eta familiak motibatu beharko dira eskola-bideak erabili eta ezagutu ditzaten. Udalerrian egiten den errepide-hezkuntza antolatzea eta aholkularitza-lanak egitea eta bizilagunen artean ezagutaraztea eta guztiek parte hartzea bilatzea. . Eskaintzan enpresak programa horretan beteko duen eginkizuna garatuko da.

Programetako materialak enpresa adjudikaziodunaren kargura izango dira.

C) JARDUKETAK ASTEBURUETAN

Atal honetan egin beharreko zereginak horretarako zehaztutako ordutegian (asteburu eta jaiegunetan) jendeari arreta ematekoak izango dira. Baina astean ere eman beharko zaio arreta jendeari, eskolen bisitarik ez badago.
Derrigorrezkoa izango da asteburuetan tailerrak, irteerak, ikastaroak, erakusketak, hitzaldiak eta abar egitea.
Atal hau zuzen baloratzeko, edozein hilabetetako (4 asteburu dituena) antolakuntza-eredua aurkeztuko da eta jarduerak helduei, ikasleei, gazteei, familiei eta abarri zuzenduta egongo dira.
Proposamen horretan adierazi beharko da baita ere ikasgela-inguruko elementuak nola integratu daitezkeen hezkuntza-baliabide eta ingurumen-sentsibilizazioko elementu gisa.
Enpresek beren eskaintzetan aipagarria iruditzen zaien eta egin nahi den beste edozein jarduera adieraziko dute ikasgelan bilatzen diren ingurumen-hezkuntzako helburuak lortze aldera (erakusketak, filmak, bideoak, ordenagailuko jokoak, bisita gidatuak...). Materialak, jarduerak egiteko tailerretarako adituen kostuak eta publizitatea enpresa adjudikaziodunaren kargura izango dira.

Gainera, uztailean eta iraileko lehen hamabostaldian, zentroko ordutegi orokorrean, jarduerak eta bisitarientzako arreta kolektibo eta talde interesdunetarako izango dira.

Abuztuan ikasgela itxita egongo da.

Horrenbestez, publikoari arreta emateko programa orokorra aurkeztu beharko da bisita gidatuekin, tailerrekin eta abarrekin. Nagusiki elkarteetako (adinekoak, kultura-kolektiboak eta abar) kolektiboei zuzenduta egongo dira.

D) LAN OSAGARRIAK

Enpresa adjudikaziodunak udal-titulartasuneko ingurumen-ikasgelako eraikinean lan egingo du. Beraz, instalazio guztien jarraipena egingo du, behar bezala funtzionatzen ez duenaren berri emango du, matxuren parteak eginez, mantentze-lanen parteak, urteko inbentarioa... udalari ahalik eta bizkorren jakinarazi eta akatsak lehenbailehen konpon daitezen.

Enpresa arduratuko da ingurumen-gelaren web-orria mantentzeaz eta haren eskaintzan haren erabilera hezkuntza-eskaintzaren eta herritar guztiei helarazi beharreko informazioaren osagarri gisa definituko da. Gainera, ingurumen-hezkuntza eta jarduerak gehiago hedatzeaz ere arduratuko da. Gutxienez hilean behin informazio-ohar bat egingo da udal-aldizkarian edo gehien saltzen diren egunkarietan argitaratzeko. Eskaintzan hedapenak egiteko sare sozialak edo bestelako bitartekoak erabiltzearen aukera garatuko da.
Enpresa adjudikaziodunak udal-arlo guztiei aholkularitza emango die ingurumenarekin lotutako eskola-eremuan jarduketak egiteko. Horretarako, esperientzia duten langileak izango ditu.

Lan osagarri orokorrak, garbiketa orokorra edo kanpoko lorategi botanikoaren eta baso kolaboratiboaren mantentze-lanak, esaterako, udalaren ardura izango dira; enpresak, berriz, instalazioak jarduerak egiten direnean garbituko ditu.

Beste alde batetik, enpresak bere kostura mantenduko ditu baratzea, dortoken urmaela, landare aromatikoak landatzea eta tximeleten oasia.

E) UDAL-PARKEETAN ETA -PLAZETAN JARDUTEA

Udalaren asmoa, bestalde, ingurumen-heziketa eta -kontzientziazioa udalerriko biztanle gehiagotara iristea da. Horretarako, urte osoko asteburuetako egun batean (lehentasunez ostiral arratsaldea edo larunbata) udalerriko auzoetako parke eta lorategietan jarduerak eta tailerrak egin nahi ditu.
Udalak zehaztuko du urteko zein asteburutan egingo diren eta zenbat lekutan egun bakoitzean. Bere aldetik, adjudikaziodunak tailer eta jardueretarako langileak eta materialak emango ditu. Atal hori zuzen baloratzeko, edozein hilabeteko antolamenduaren eredua (4 asteburu dituena) aurkeztuko da eta bertan jasoko dira helduei, ikasleei, gazteei, familiei eta abarri zuzendutako jarduerak.
. Bukatutako lan horiek eskaintzako unitate-prezioekin bat etorriz ordainduko dira.

3.2. Materialak

Enpresa lizitatzaileen proposamenean sartuko dira: bulegoko barneko material suntsikorrak, laneko arropa eta gutxienez telefono mugikor bat ikasgelaren kanpoaldean aurkitzeko moduan egon dadin, baita ordenagailu bi eta koloretako inprimagailu bat eta haren kontsumigarriak ere.

Enpresa lizitatzaileen proposamenean eskolako programak egiteko beharrezko material suntsikorrak jasoko dira (eskolako programaren liburuxka, ikasleen koadernoa, irakasleena...), bai eta eskolako ingurumeneko partaidetza-programak (ibilbideetarako ikasleen fitxak, irakasleentzako baliabideen gida eta beste batzuk). Material horiek eta pleguan aurretik aipatu direnak adjudikazioaren kargu geratuko dira.

3.3. Lan-ordutegia

Zerbitzua urte guztian eman beharko da ixten den denboraldian salbu (urtarrilak 1 eta 6, abuztua eta abenduak 24, 25 eta 31).

Zentroko ordutegi orokorra:

- Astegunetan, 09:00etatik 14:30era eta 15:30etik 17:30era.
- Asteburuetan eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara.

3.4. Giza taldea

Eskaintza teknikoan zerbitzuari atxikitako giza taldea zehatz-mehatz azalduko da, eta pertsona bakoitzak plegu honetan proposatutako jarduerak jorratzeko dituen funtzioen banaketa ere bai. Taldekide bakoitzak egindako lanak berariaz definitu beharko dira aurkeztuko den eskaintzan. Gaur egun, ingurumen-ikasgelan 3 langile daude lanean subrogazio-eskubidearekin eta datuak I. eranskinean daude. Enpresek askatasuna izango dute langile bakoitzak egin beharreko lanak definitzeko, bere kategoriaren arabera, eta egokitzat jotzen dituzten langileak laneratzeko aukera ere izango dute.

3.5 Proiektua jarraitzeko dokumentazioa

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren udaleko arduradunari ondorengo informazioa entregatu

beharko dio:

Bisitarien harrerako hiru hilean behingo eta urteko estatistika memoria eta ingurumen-hezkuntzako jarduera-zerbitzuaren memoria. Eskolan ingurumeneko partaidetza-programak garatzeari buruzko dokumentazioa, deskribatutako ezaugarrien arabera. Zerbitzuaren funtzionamendu normalean aldaketarik balego, enpresa adjudikaziodunaren koordinatzaileak ahalik eta bizkorren jakinaraziko du. Lehen hiru asteetan adierazle-inbentario bat aurkeztuko da eta inbentario horrekin lana zuzen jarraituko da.
Plegu honetan sartutako lanak egiteko orduan sortutako material guztiak Getxoko Udalarenak izango dira. Urteko memoriarekin batera entregatuko dira udaleko informatika-sistemekin bateragarria den formatu batean.

3.6. Aseguru-poliza derrigorrez egin beharra

Kontratua sinatzen denerako, enpresa adjudikaziodunak erantzukizun zibileko indarreko aseguruaren poliza aurkeztu beharko du, kontratu honen xede diren lanengatik, ekitez edo omisioz, zuzenean nahiz zeharka hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteengatiko erreklamazioei aurre egitea bermatuko duena; ezbehar bakoitzeko, 360.000,00 euro gutxienez. Jabetzaren ondasunei eta instalazioei eragindako kalteak barruan sartzen dira.
Aseguruan, jabetza aseguratu gehigarri gisa jasoko da, hirugarren izateari utzi gabe.

Adjudikaziodunak aipatutako asegurua kontratatu duela egiaztatuko du. Horretarako, sinatutako poliza aurkeztuko du (bertan agertu beharko da mediku-estaldura), baita ere ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria. Poliza berritu den kasuetan, azken urteko kuotaren ordainagiria entregatuko da.
Adjudikaziodunak bere kostura kontratatu eta mantenduko du aseguru hori kontratua eta luzapen posibleak indarrean dauden bitartean.

3.7. Datuak babestea eta sekretu profesionala. Lanaren jabetza

3.7.1 Konfidentzialtasuna
Getxoko Udalak eta/edo kontratatutako zerbitzuaren norbanako edo enpresa hartzaileek ematen dituzten eta hemen arauturiko zerbitzua emateari dagozkion datu eta argibide guztiak isilpean gordeko ditu adjudikaziodunak. Bereziki Informazio Konfidentzialtzat joko da kontrataturiko zerbitzuak (Zerbitzuak) gauzatzearen ondoriozko *know how* edo egiten jakitea, eta adjudikaziodunak isilpean eta gordeta mantendu beharko du, kontratukoa ez den ezein pertsona fisikori edo juridikori jakinarazi gabe, osorik edo zati batez.

3.7.2 Datuak babestea

3.7.2.1. Araudia

Kontratatutako zerbitzuaren funtzionamenduak badakar datu pertsonal babestuak tratatzea Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko

3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora ekarri dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, eta Lege horren 25. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuek osorik bete beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez (DBEO), baita araudi osagarria ere. Baldin eta, kontratazioa dela-eta, kontratistak datu pertsonalak erabili behar baditu eta datuon tratamenduaren erantzulea erakunde-kontratatzailea bada, kontratista izango da tratamenduaren arduraduna. Kasu horretan, datu horietarako sarbidea ez da hartuko datuen komunikaziotzat, baldin eta DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada. Edozein kasutan, aurreikuspenak idatziz jaso beharko dira.

3.7.2.2. Datu pertsonalen tratamendua

Baldintza-agiri honen xedea betetzeko, Getxoko Udalaren ardurapeko datu pertsonalak tratatu behar ditu adjudikaziodunak klausula honetan zehazturiko moduan, administrazio-klausula berezien pleguetan eta "Datu pertsonalen tratamendua" deritzon eranskinean zehaztutakoarekin osatuz, hain zuzen ere. Horrek berekin dakar adjudikaziodunak tratamenduaren arduradun jardutea eta, beraz, unean uneko indarreko araudia bete behar du nahitaez, betiere, datu pertsonalak behar bezala tratatuz eta babestuz.

Hortaz, Getxoko Udalari dagokio tratamenduaren erantzulearen ardura bere gain hartzea. Tratamenduaren arduradunaren erantzukizuna, berriz, adjudikaziodunari. Adjudikaziodunak datuak beste helburu baterako erabiliz gero edo kontratuaren xedapenak bete gabe jakinarazi ala erabiltzen baditu, tratamenduaren arduraduntzat joko da bera ere, eta pertsonalki izan ditzakeen arau-hausteen aurrean erantzungo du.

"Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean, zehazki azaltzen dira babestu beharreko datu pertsonalak, baita egin beharreko tratamendua eta adjudikaziodunak abiarazi beharreko neurriak ere. Baldin eta, kontratuaren gauzatzearen ondorioz, inoiz eranskinean ezarritakoa aldatu beharra badago, zentzuz egingo du horretarako eskaera eta eskaturiko aldaketak aipatuko ditu. Getxoko Udala eskatutakoarekin ados badago, "Datu pertsonalen tratamendua" izeneko eranskin eguneratua emango du, halako moldez non tratamenduaren egiazko xehetasunak bilduko baititu beti.

4.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honen barnean dauden era guztietako dibulgaziozko materialak prestatu eta sortzeko orduan, Getxoko Udaleko korporazioaren identitateko eskuliburuak errespetatu beharko ditu.

Adjudikaziodunak, kontratua gauzatzen den bitartean, datu-babesari buruzko estatuko nahiz Europar Batasuneko araudiak bete beharko ditu, zehazki, jarraian adierazitako arauak edo horiek ordezkatzen dituztenak:

- 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, Premiazko neurriak ezartzen dituena segurtasun publikoagatik, administrazio digitalaren, sektore publikoaren kontratazioaren nahiz telekomunikazioen alorretan.

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.

Betebehar horiek funtsezko kontratu betebehartzat jotzen dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutakoari jarraikiz, eta horiek ez betetzeagatik kontratua suntsiarazi ahalko da.

Halaber, gure autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialak egoki erabiltzen direla arreta handiz zainduko da; hala, bi hizkuntzak erabili beharko dira kontratu honi eragiten dioten zeregin guztietan.

Paperaren eta kopia inprimatuen erabilera gutxituko da, euskarri elektronikoak erabiliz, ahal bada, eta jardueraren nolakotasunak ahalbidetzen badu. Euskarri elektronikoan egin ezin diren barneko eta kanpoko parte-hartze jarduera guztietan, kontsumitu ondoren % 100ean birziklatutako eta klororik gabeko papera (TCF) erabiliko da. Azaleztatutako materialaren kasuan, saihestu egingo da berrerabilgarriak edo birziklagarriak ez diren osagaiak egotea.
Antolatzen diren bileretan eta/edo aurkezpenetan erabiliko diren bitartekoak eta baliabideak bat etorriko dira berotegi-efektuko gasen isuriak arintzeko politikekin. Horrek esan nahi du, adibidez, ez dela erabilera bakarreko elementurik banatzen lan-mahaietan, sortutako hondakinak (halakorik balego) gaika bilduko direla eta abar.
Interpretazioko materialak, material didaktikoak, argitalpenak, txosten guztiak eta kontratu honen barneko paperezko beste edozein elementu, birziklatutako paperarekin egin beharko dira.

Enpresek hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dituzte eta estereotipo sexistarik ez duten materialak eta jarduerak sortuko dituzte, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen dutenak.
Kontratua betetzeagatik erakunde lizitatzaileak aurkeztu beharko dituen txostenak eta memoriak egiterakoan ondokoa jaso beharko da: kontratua beteko duten langileen eta erabiltzaile edo onuradunen inguruko datu estatistiko guztiak, sexuaren eta adinaren arabera bereiziak...

Baldintza berezi horietako edozein ez betetzea (datuak babesteari dagokiona salbu) kontratu-prezioaren % 10eko zenbatekoarekin zehatuko da.

5.- LAN-EGITARAUA

Enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatzen denetik hiru aste baino gutxiagoko epe batean honako hauek zehaztuko dituen lan-programa bat aurkeztuko du: egin beharreko lanak, epeak, langileen antolaketa, materialak eta kontratuko lehen urteko jarduera argitzeko beharrezkoak diren xehetasunak.

Programa hori bata bestearen atzetik aurkeztuko da, banan-banan edo urteko memoriarekin batera.

6.- IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da administrazio-kontratua sinatzen den unetik aurrera zenbatuta. Kontratua luzatu ahalko da, urtebeteko bi luzapenen bitartez; kontratuaren iraupen osoa gehienez lau urtekoa izango da.

7.- KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN NAHIZ GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALAREN BALDINTZAK:

Enpresa lizitatzaileek honako hau egiaztatu beharko dute:

a) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

Lizitatzaileak negozioen urteko bolumena egiaztatu beharko du, eta amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteak 164.000 eurokoa izan beharko du gutxienez (BEZa kanpo). Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena Merkataritza Erregistroan aurkeztutako eta onetsitako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; halakorik ezean, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoen bidez egingo da. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek negozioen urteko bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen nahiz urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute.

b) Gaitasun teknikoa eta profesionala:

Langile hauek beharko dira gutxienez kontratuko lanak betetzeko:

- zerbitzuaren arduradun bat, urteko lanaldi osoan (erreferentziako hitzarmeneko 3. taldea erantzukizun osagarriarekin)
- langile bat urteko lanaldi osoan. Eskola-bisitetan hezitzaile gisa jardungo du eskolako ingurumeneko partaidetza-programetan eta beste talde batzuekin ere bai, astelehenetik ostiralera (erreferentzia-hitzarmeneko 3. taldea).
- lanaldi partzialeko pertsona bat asteburu eta jaiegunetako zerbitzuak egiteko (erreferentziako

hitzarmeneko 4. taldea).
- Asteburuetan parkeetan eta lorategietan jarduerak egiteko behar besteko langileak (erreferentziako hitzarmeneko 4. taldea edo tailerretan esperientzia duten langileak).

Zerbitzuari lotutako pertsonek gutxienez Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko, Natura Ingurunearen Kudeaketako edo antzeko goi graduko prestakuntza-moduluko titulazioa eduki behar dute, lehenengo bi kasuetan, eta antzeko arloetako gradu ertaineko prestakuntza-moduluko titulazioa (edo Astialdiko Begiraleko titulu ofiziala) hirugarren eta laugarren kasuetan. Azalduko dituzten gaietan ezagutza zehatzak izan behar dituzte, eta gutxienez bi urteko esperientzia ingurumen-balioak igortzen, herritarren parte-hartzearen bitartez. Jarduera hau euskaraz erraz egiteko moduko euskararen ezagutza frogatu beharko da. C1 maila frogatu beharko da.
Proiektuari esleitutako langileen esperientzia egiaztatzeko, plegu honen xede den alorrean betetako zerbitzuen zerrenda bat aurkeztu beharko dute gutxienez bi urtez, datak, iraupena eta deskribapena zehaztuta, eta zerbitzu hori norentzat egin den adierazita. Egindako lan edo zerbitzu horiek ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira.
Zerbitzua ematerakoan giza taldea osatzen duten pertsonetakoren bat aldatu edo ordeztu behar baldin bada, aipatutako titulazio-, ezagutza- eta esperientzia-betekizunak mantenduko dira, kontratuaren udal-arduradunak aldez aurretik jakin eta baimenduz gero.

Gainera, eta aintzat hartuta posible dela zerbitzua adingabeei ematea, sexu-delituen ziurtagiria aurkeztu beharko da uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikuluan xehatutakoa betez.

Enpresa lizitatzaileek pertsona bat izendatuko dute egin behar diren jarduketa guztiak koordinatzeko; pertsona hori administrazioaren mintzakidea izango da.

Enpresa lizitatzaileek ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat edo enpresak onetsitako ingurumen-kudeaketako protokoloak izan beharko dituzte, ingurumena zaintzen eta atmosfera hobetzen laguntzeko. Hala, ziurtagiri edo protokolo horiek aurkeztu egin beharko dira.

Gutxieneko kaudimen eta gaitasun hori egiaztatzen ez duten lizitatzaileak kanpo geratuko dira.

8.- PREZIOA

Zerbitzua emateko gehieneko lizitazio-prezioa urteko 164.000 eurokoa izango da.
- Ingurumeneko hezkuntza-programaren, eskola-eremuko ingurumeneko partaidetza-programen, asteburuetako jarduketen eta ingurumen-ikasgelako lan osagarrien gehieneko prezioa: 151.500 euro (BEZa SALBUETSITA)

- Auzo eta parkeetako (aldakorrak) jarduera-programen gehieneko prezioa: Asteburu bakoitzeko tailerraren unitate-prezioa aurkeztuko da (horren barne egongo dira langileak eta materiala). Gehienez ere 300 euro izango dira (BEZa salbuetsita).

Atal honen urteko gehieneko kostua 12.500 euro izango da (BEZa SALBUETSITA).

Eskaintza ekonomikoan bi prezio horiek bereizita sartu beharko dira baloratu ahal daitezen.

Kontratua BEZetik salbuetsita dago, Balio-erantsiaren gaineko zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20.1.9 artikulua betez.

Eskaintzak ezohikoak edo proportzioz gaindikoak badira, interpretazioa urriaren 12ko 1098/2001 Legegintza Errege Dekretuaren 85. artikulua aplikatuz egingo da.

9.- ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa hilero egingo da, aurrez dagokion faktura aurkeztuta. Ingurumeneko hezkuntza-programaren, eskola-eremuko ingurumeneko partaidetza-programen, asteburuetako jarduketen eta ingurumen-ikasgelako lan osagarrien fakturak adjudikazio-balioaren hamabirenetan egingo dira.
Auzo eta parkeetako (aldakorrak) jarduera-programa fakturatu beharreko hilabetean egindako lanarengatik fakturatuko da.

10.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua arrazoi hauengatik aldatu ahalko da:

- Zerbitzuetan (eskolen bisitak, bisitariak instalazio-erakusketetara eta partaideak dinamizazio programan) bisitarien guztizko kopurua % 10 baino gehiago handitzea (aurreko urteko bisitari-kopuruaren aldean kalkulatuta), halako moldez non, udalaren iritziz, zerbitzua ematean gutxieneko kalitate-estandarrari eusteko langileak gehitu behar diren.

- Urteko bisitak mantentzea (aurreko urteko bisitari-kopuruaren aldean kalkulatuta), kontuan hartuz osasun-arrazoiengatik begiraleko bisitari- edukiera eta -ratioak betetzeko behar den langile-gehikuntza.

- Udalerriko auzoetako parkeetan eta plazetan egin beharreko jardueretarako asteburu-kopurua edo lekuak gehitzea. Gehikuntza hori udal-teknikariek erabakiko dute ekimenaren arrakastari edo bizilagunen eskariei erreparatuz. Aldaketak egingo dira adjudikatutako unitate-prezioak X egin beharreko tailer-kopuruak jarduera horietarako pleguetan finkatutako gehieneko kostua gainditzen duenean.

Kontratu-aldaketen prezioa inolaz ere ez da izango urteko aurrekontuaren % 20 baino handiagoa.

Lehenengo bi kasuetan aldaketa langileak gehitzeagatik egingo da (begirale-kopurua, egunak, orduak...) eta aldaketaren unitate-prezioak 3. eta 4. kategorietan (indarreko hitzarmena) markatutakoak izango dira beharrezko zehaztapenekin: ohiko orduaren prezioa eta jaiegunetako plusa.
Aldatzeko hirugarren aukerari dagokionez, tailer-kopuruarengatik, eskaintzan tailer bakoitzerako markatutako prezioa kontuan hartuko da.

11.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Automatikoki ebaluatzen diren irizpideak: 51 puntu

Eskaintza ekonomikoa Balioa: 36 puntu

Ikuspegi ekonomiko batetik onuragarrienak diren proposamenak baloratuko dira.

Ingurumeneko hezkuntza-programarako, eskolako ingurumeneko partaidetza-programetarako, asteburuetako jarduketetarako eta ingurumen-ikasgelako lan osagarrietarako formula administrazio-baldintzen pleguan zehaztutakoa izango da eta **gehienez ere 33 puntu eskuratu ahalko dira.**

Auzo eta plazetako jarduera-programarako formula administrazio-baldintzen pleguan zehaztutakoa izango da eta **gehienez ere 3 puntu eskuratu ahalko dira.**

Eskaintzak ezohikoak edo proportzioz gaindikoak badira, interpretazioa urriaren 12ko 1098/2001 Legegintza Errege Dekretuaren 85. artikulua aplikatuz egingo da.

Prestakuntza: 9 puntu

Kontratuari esleitutako langileek jasoko duten urteko prestakuntza, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusia badauka (ingurumeneko hezkuntza, ingurumeneko ezagutzak eta jendearentzako arreta) **gehienez 4 punturekin** baloratuko da.

Urteko prestakuntza kontratuari esleitutako langileek jasoko duten berdintasunean baloratuko da, modu horretan, zerbitzuan aukera-berdintasuneko irizpideak aplikatu ahal izateko. Gehienez ere **5 puntu** eskuratuko dira.

Prestakuntza-baremoa hau izango da: 1 puntu pertsona bakoitzaren 5 orduko prestakuntzako. Ikastaroa edo prestakuntza, orduak, gaia eta prestatzailea (pertsona edo erakundea) zehaztu beharko dira kasu bakoitzean.

Eskaintzan prestakuntza-ikastaroen gutxieneko egutegia finkatuko da.

Gizarte- eta ingurumen-irizpideak: 6 puntu

Puntu hauei buruzko kontratuaren ingurumen-balioak mantendu eta hobetzeko ekintzak baloratuko dira:
-Erabilitako produktuak birziklatzeko eta erabiltzeko protokoloa: 1 puntu. Protokoloa aurkeztearen bitartez egiaztatuko da.
-Erabilitako horniduren ingurumen-ziurtagiria. 1 puntu. Ingurumen-ziurtagiriekin egiaztatuko da.
- Mugikortasuna eta ingurumen-ikasgelarako irisgarritasuna: Gehienez 3 puntu.
Ikasgelara joateko ibilgailu pribatuek edo enpresaren ibilgailuek gutxienez B edo C ziurtagiria izan beharko dute: 1 puntu.
Ikasgelara igotzeko gutxienez 2 ibilgailu (partikularrak edo enpresarenak) elektrikoak edo hibridoak izango dira: 3 puntu. Erantzukizunpeko adierazpenarekin egiaztatuko da.
-Erakundearen barne-prestakuntza egitea lan-ordutegian edo lan-ordutegiaren zati batean eta ikasgelako jardueren garapena oztopatu gabe: 1 puntu. Erantzukizunpeko adierazpenarekin egiaztatuko da.

Automatikoki ebaluatzen ez diren irizpideak: 49 puntu

Lizitatzaileek proiektu edo memoria bat aurkeztu beharko dute, eta baldintza teknikoen kontratu honen 3. eta 4. artikuluetan adierazitakoa ahalik eta gehien deskribatuko da bertan.

1 punturekin baloratuko da, gehienez ere.

- Enpresa lizitatzaileek proiektuan edo memorian jarduerak deskribatzeko izandako argitasuna, zehaztasuna, xehetasuna, eta kontraste dokumentala.

13 punturekin baloratuko da, gehienez ere.

- Ikastetxearen egituraketa eta funtzionamendurako proposamena: proposatutako kudeaketa-ereduaren sendotasuna, jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko sistematika, beste udalerri batzuetako ikastetxeak kudeatzeko sistema, lantaldearen koherentzia eta haren antolaketa eta banaketa egokia zentroari eta haren zerbitzu, programa eta jarduera guztiei arreta emateko, koordinazio-sistema eta proposatutako zerbitzu-sortaren aniztasuna eta egokitasuna.

31 punturekin baloratuko da, gehienez ere.

- Ikuspegi metodologikoa eta jarduera-lerroen garapena. Ikuspegiaren sendotasuna, zorroztasun teknikoa eta ikuspegi berritzailea baloratuko dira.

    - Ikastetxeekin egindako ingurumen-hezkuntzako programa. 13 puntu.
    - Ingurumeneko partaidetza-programak eskolan. 8 puntu
    - Jarduketak asteburuetan. 4 puntu
    - Lan osagarriak:2 puntu
    - Jarduerak parkeetan eta plazetan: 4 puntu

4 punturekin baloratuko da, gehienez ere.

Ingurumen- eta hezkuntza-hobekuntzak, udal-teknikariaren iritziz hezkuntza-kalitatean edo ingurumenarentzat funtsezko hobekuntza dakartenak, eta pleguan aurreikusi ez diren eta zerbitzuaren kalitatean hobekuntza bat dakarten zerbitzu osagarriak ezartzea. Puntu bat emango da ezarri beharreko hobekuntza edo zerbitzu bakoitzeko

Getxon, 2025eko ekainaren 23an

INGURUMENEKO ARDURADUN TEKNIKOA

Sin: JOSU ATEKA ACEBO

AZPIEGITURA-, OBRA-, ZERBITZU-, ETA INGURUMEN- ARLOKO ARDURADUNAREN ONIRITZIA

Sin. Pedro María Sacristán González.

Ingurumen Unitateko arduraduna den zinegotziak ontzat emana

Sin: IÑIGO URKITZA

I. ERANSKINA: SUBROGATUKO DIREN LANGILEAK

ortzadar

ANEXO EN EL CÚAL SE RECOGE EL LISTADO DEL PERSONAL A SUBROGAR POR EL ADJUDICATARIO DEL SERVICIO:
AULA MEDIOAMBIENTAL. AYUNTAMIENTO DE GETXO.

Puesto	DNI	Antigüedad	Tipo contrato	% jornada	Categoría	Retribución bruta anual
1	xx.xxx.421L	15/04/2015	Indefinido	100	Grupo 3	32.388,86
2	xx.xxx.503J	15/07/2022	Fijo discontinuo (9,5 meses anuales)	100	Grupo 3	22.546,31
3	xx.xxx.061V	02/07/2023	Indefinido	24,80	Grupo 4	6.827,80

Convenio de aplicación: Intervención Social de Bizkaia

Pactos aplicables al personal: La persona que ocupa el puesto nº 1 percibe un complemento de responsabilidad, cuyo importe está incluido en su retribución anual.

Bilbao, 3 de septiembre de 2025

22732495P JESUS ANGEL QUINTANA (R: B48457808)

Firmado digitalmente por 22732495P JESUS ANGEL QUINTANA (R: B48457808)
Fecha: 2025.09.03 13:23:03 +02'00'

II. ERANSKINA: DATUAK BABESTEKO AGIRIA

II. eranskina. **DATUAK BABESTEKO TRATAMENDUA**

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN: .....), ... enpresaren (IFK: .....) izenean eta hura ordezkatuz, zeina GETXOKO UDALAREN (XXXXXXX) kontratuaren enpresa adjudikazioduna baita (espedientea zehaztu) zenbakidun espedientean eta zeina aurrerantzean TRATAMENDUAREN ARDURADUNA izango baita,

ADIERAZTEN DU

_____(e)k (aurrerantzean, TRATAMENDU-ARDURADUNA), XXXX(e)ko XXXXaren XX(e)(a)n sinatutako kontratuaren ondorioz XXXXXXXXXXXXXXXXX kontratuaren adjudikaziodun den aldetik, datu pertsonalak tratatuko ditu; datu horien arduraduna (aurrerantzean, TRATAMENDU-ARDURADUNA) udala izango da, bereziki, Getxoko Udalaren tratamendu-jardueren erregistroan dagoen "XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX"(a)(r)(e)n tratamenduari dagokionez.

Honako hauek beteko ditu: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa, bai eta hura garatzeko araudia ere.

ADIERAZTEN DU

1.- Lehen zehaztutako espedientean aipatzen den kontratua betetzeko erabiliko diren zerbitzariak eta horiei lotutako zerbitzuak honako hauek direla:

ZERBITZARIEN KOKAPENA
Adierazi zerbitzariak dauden posta helbidea

2.- Konpromisoa hartzen du kontratua indarrean den bitartean zerbitzarien eta ematen diren zerbitzuen kokapenean izandako edozein aldaketa berariaz jakinarazteko.

3.- Bere gain hartzen ditu GETXOKO UDALAK datu pertsonalen tratamenduari buruz ematen dizkion jarraibide hauek, bai eta TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN funtzioak eta betebeharrak ere, zehaztapen hauen arabera:

Taldeak eta tratatzen diren datuak

Onuradunak eskuratu ditzakeen datu pertsonalak eta interesdunen taldeak hauek dira:

INTERESDUNEN KATEGORIAK
☐ LANGILEAK ☐ INTERESDUNAK ☐ HERRITARRAK ☐ ORDEZKARIAK ☐ KARGU PUBLIKOAK
TRATAMENDURAKO ESKURA DAITEZKEEN DATU PERTSONALAK

• IZENA • ABIZENAK • HELBIDE ELEKTRONIKOA • TELEFONO-ZENBAKIA • ARGAZKIA

Tratamendua egiteko prozedurak edo sistemak:

X Automatizatuta (osorik edo zati batean)
X Ez-automatizatua (eskuz)

Tratatuko diren elementuak/eragiketak
Datu pertsonalen tratamenduaren barruan honako hauek sartzen dira:

☐ Jasotzea (datuak eskuratzea)
☐ Kontserbatzea

Datuen helmuga: Erakunde adjudikaziodunak zerbitzua ematen amaitzean datu pertsonalak eta, hala badagokio, datuak jasota dauden euskarriak GETXOKO UDALARI itzuliko dizkiola hitzematen du. Itzultzerakoan erakunde adjudikaziodunak osorik ezabatu behar ditu erabili dituen ekipo informatikoetan dauden datuak.
Segurtasun-neurriak

Ezarri beharreko segurtasun-neurriak Europako Parlamentuaren DBEO UE 2016/679 Erregelamenduaren 32. artikuluan ezarritakoak izango dira, eta, bereziki, datuen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak direnak, GETXOKO UDALAREN segurtasun-jarraibideekin eta -irizpideekin bat etorriz. Hori guztia, bat etorriz maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duenaren, II. eranskinean (segurtasun-neurriak) ezarritakoarekin.

Eranskina aldatzea.- Kontratuaren betearazpenaren ondorioz beharrezkoa bada uneren batean eranskin honetan ezarri dena aldaraztea, adjudikaziodunak arrazoituz eskatuko du eta eskatzen dituen aldaketa horiek zehaztuko ditu. Getxoko Udala eskatu den horrekin ados badago, eranskin eguneratu bat egingo du eta, horrela, agiri horrek beti jasoko ditu era egokian tratamenduaren zehaztapenak.

Getxon, 2025...(e)ko .....aren ....(e)(a)n.

Sinadura: XXXXXXXXXXXXXXXXX jauna
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ERANSKINA: DATUEN BABESA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

Getxoko udaleko idatzi administratiboak itzultzeko eta zuzentzeko esleipena jaso duen enpresa::.....(NIF zk .....).

Kontratuaren **espediente** zenbakia:.....

Datu pertsonalen **tratamendurako pertsona arduraduna**: .....jauna/Andrea NA zk: .....

ADIERAZTEN DUT:

1.- Aurreko espedientean aipatutako kontratua gauzatzeko erabiliko diren zerbitzariak eta horiei lotutako zerbitzuak Getxoko udalaren jabetzakoak direla

ZERBITZARIEN KOKAPENA

2.- Nire gain hartzen ditut GETXOKO UDALAk datu pertsonalen tratamenduari buruz bidaltzen dizkidan jarraibide hauek, eta nire gain hartzen ditut TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN eginkizunak eta betebeharrak, honako zehaztapen hauen arabera:

"DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA"

Taldeak eta tratatzen diren datuak

Tratamendu-eragileak tratatzeko erabil ditzakeen interesdunen taldeak eta datu pertsonalak honako hauek dira:

INTERESDUNEN KATEGORIA
☐ HERRITARRAK ☐ INTERESDUNAK ☐ LIB. LEGEZKO ORDEZKARIAK ☐ ENPLEGUA ESKATZEN DUTEN PERTSONAK ☐ KARGU PUBLIKOAK DITUZTEN PERTSONAK

Tratatutako datuak:

Erakunde adjudikaziodunak honako informazio pertsonal hau tratatu ahal izango du:

Eskura daitezkeen tratamenduaren datu pertsonalak
☐ NAN/IFZ/AIZ/PASAPORTE-ZENBAKIA ☐ IZENA ☐ ABIZENAK ☐ POSTA ELEKTRONIKOA ☐ ARGAZKIA

Tratamendu-prozedurak edo -sistemak:
☒ Automatizatua (osoa edo partziala)
☒ Ez automatizatua

Tratamenduaren elementuak

TRATAMENDU-ERAGIKETAK
☐ Jasotzea (Datuak hartzea) ☐ Kontserbazioa (biltegiratzea)

Datuen xedea: adjudikazioa lortzen duen entitateak GETXOKO UDALAri itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, horiek dauden euskarriak, prestazioa bete ondoren.

Segurtasun-neurriak: ezarri beharreko segurtasun-neurriak GETXOKO UDALA - Ayuntamiento DE GETXOren Segurtasun Politikan jasota daudenetatik beharrezkoak direnak izango dira, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean (segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin bat etorriz.

Eranskina aldatzea.- Kontratua gauzatzearen ondorioz, eranskin honetan ezarritakoa aldatu behar izanez gero, adjudikaziodunak arrazoiz eskatuko du, eta eskatzen dituen aldaketak adieraziko ditu. Getxoko Udala eskatutakoarekin ados egongo balitz, Getxoko Udalak eranskin eguneratu bat egingo luke, eta bertan tratamenduaren xehetasunak zehatz-mehatz jasoko lirateke.